

XIII. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA

(2006ko apirilaren 1ean)

OINARRIAK

Txapelketa taldeka egiten da (2-4 kide, 16 urtetik gorakoak).

Izena emateko azken eguna **MARTXOAREN 27a** izango da. TALDEAREN IZENA, eta TELEFONOA edo HELBIDE ELEKTRONIKOA eman beharko dira.

Taldeak **10** € ordaindu beharko du **izena ematean**, inskripzio gisa.

Izenaz gain, taldeek zenbaki bana izango dute: 1. taldea 2. taldea, etab.

Txapelketak BI SAIO ditu: eguerdian KANPORAKETAK eta arratsaldean FINALAK.

Zerrendako 100 esaera zaharretatik bat **ez da** benetakoa. Esaera "**berria**" identifikatzen duen lehenengo taldeak bere ibilbidea hautatu ahal izango du.

Hortik aurrera esaera hori besteak bezalaxe agertu ahal izango da.

Txapelketan, bertsoei dagozkien esaerak zerrendan ofizialean agertzen den modu **BEREAN** (hitzez hitz) esan beharko dira ontzat emateko. Txapelketa egunean ezin izango da zerrenda eskuan izan.

Esaera asmatzeko bertso bat kantatuko zaio dagokion taldeari, bertsoan esaera asmatzeko hainbat zantzu agertuko delarik. Bertsoa, gehienez, birritan kantatuko da eta hortik aurrera taldeak minutu bat izango du erantzuna emateko, **TALDEKO BOZERAMALEA**ren bidez (beti pertsona bera). Erantzun bakarra onartuko da taldeko.

Talde bakoitzak, gutxienez, **bertso bi** entzungo ditu (hau da, esaera bi asmatu ahal izango ditu). Bere txandan asmatzen duen **esaera bakoitzeko**, taldeak **puntu BI** eskuratuko ditu.

Esaera **asmatu ezean**, beste taldeek **erreboterako aukera** izango dute. **Bertsoa berriro kantatuko**, eta taldeen ordena errespetatuko da. **Errebotean** asmatzen duen taldeak **puntu BAT** irabaziko du.

Goizeko ibilbide bakoitzean puntu gehien batzen duen taldea **FINALERA** joango da; arratsaldean puntu gehien lortzen duena IRABAZLEA izango da.

Kanporaketetan zein finalean **HAINBANA** gertatuz gero, bertso bana kantatuko zaie taldeei, batek besteek baino puntu gehiago erdietsi arte.

SOPELAKO AEK-k honako **oinarriak aldatzeko eskubidea** du, antolaketa arazorik izanez gero.

Epaimahaia izango da txapelketa gidatzeko; SOPELAKO AEK-k erabakiko du zenbatek eta nortzuek osatuko duten.

Txapelketan parte hartzeak oinarriok **onartzea** dakar ezinbestean. Hala ere, beti izango da **kexatzeko eskubidea**.

**SOPELAKO AEK
NIKOLA EUSKALTEGIA**

ENRIKE URRUTIKOETXEA 12, 48600 SOPELA (BIZKAIA)

94-6764876 edo **HIPERVÍNCULO "mailto:nikola@æknet.net"**

nikola@æknet.net